



4.-María Íñiguez de Atucha Usansolo

Aurkeztuak ditugu Pedro Ortiz de Atucha eta Mari Ibáñez de Usansolo, ezkonduz gero -eta besteak beste- Lemoako Atutxa eta Atutxola oinetxeetako jabe.

Pedro Ortiz de Atucha hiltzen den garaian egin den inventarioari esker dakigu alaba bat izan zutela, **María Íñiguez de Atucha**, Martín de Zamudiorekin ezkonduko dena.

Bestalde, adin txikiko bi alaba dituzte, **María Ibáñez eta Antona de Atucha**, hamabi urtetik beherakoak, jarraiko agirian ikus daitekeen bezala:

En el lugar de Arancau, que es en la merindad de Arratia, a veinte e vn dias del mes de henero de mill e quinientos y setenta e dos años, ante... P de Lorono, teniente de alcalde del fuero de Vizcaya, y en presencia de my Po de Leguinaeche, escriuano de su mgd e testigos de yuso escritos, parecio presente doña Mari Yvanez de Vsunsolo, viuda, mujer que fue y quedo de Pero Urtiz de Atucha, defunto, bezina de la anteyglesia de Arancau, e dixo que podia auer cinco meses poco mas o menos que el dho Pero Vrtiz de Atucha su marido fallecio e paso de esta presente vida, en el tiempo que ofrecio... por sus hijas legitimas e della... a **Mari Ybanes e Antona de Atucha, sus hijas** que presentes estaban, que heran menoras de la hedad de los doze años, y por ser de la dha hedad tenian necesidad de ser probeidas de tutor que admynistre sus personas e bienes... (ZUA_03_Leginetxe_1572_02).

Ez dugu inongo semeren errazturik aurkitu.

María Íñiguez de Atucha dugu Pedro Ortiz eta Mari Ibáñez en alabarik zaharrena. Ez dugu bere jaiotzari buruzko inongo daturik; are, ia ez dugu inongo daturik, beti ere bere senar izango den Martín de Zamudiori lotua.

4.1.-María Íñiguez eta Martín de Zamudio

4.1.1.-María Íñiguez de Atucha eta Martín de Zamudioren ezkontza-akta

Martín de Zamudio hau Lemoako Patroi dugu, nonbait¹. Hala erakusten zaigu Lemoako Eleiz Artxiboetako 1563ko abenduak zortziko jaiotze-akta batean:

A ocho dias del mes de dizenbre de mil y quinientos y sesenta y tres años, fue batizada M^a Saez, hija de Juana de Atucha, por Prudenzo Abad = tubo por padrino a **Mrn de Camudio, patron de Lemona**, y Marina de Jauregui-----, de Juan de Atucha y Catelyna de Yturrioz, la de -----” (EE_AA_jaiotzak_1227693).

Baita María Íñiguez de Atucha eta Martínen arteko ezkontza-aktan ere. Lemoan ezkondu ziren 1572ko azaroak hogeita zazpian (EE_AA_ezkontzak_101405):

¹ “La familia bilbaína de los Zamudio llegó a copar hacia mediados del siglo XVII los cargos de patrono, merino (de Bedia, merindad a la que pertenecía Lemona), cura, alcalde, fiel regidor y escribano de Lemona” (Larrea, A.: *El patronato laico vizcaíno en el Antiguo Régimen*, 1984: 224).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoien bidetik

Martin Saez de Zamudio, patron & Mari Yniguez de Attucha -678-

“En la iglesia de Nra Señora Sancta Maria de Lemona, a beynte y siete dias del mes de noviembre de mil e quinientos y setenta y dos años, **Mrn Saez de Çamudio**, patron de la dha y glsa, y doña **Mª Yniguez de Atucha** rrecibieron las bendiciones y fueron velados por Prudenzio Abad de -----, cura de la dha iglesia, segun y como manda la sancta madre iglesia, de forma de presente ----- el matrimonio, conformandose con lo dispuesto en el Conçilio Trentino...”

María Iñiguez de Atucha Lemoan hil zen 1611ko irailak hogaeta seian (*EE_AA_heriotzak_203482*).

4.1.2.-Martín de Zamudio, koinataren zaintzaile. 1576-02-28 (ZUA_03_Leginetxe_1576)

Ikusi dugun bezala, Pedro Ortiz eta Mari Ibáñez alaba dugu Mari Ibáñez de Atucha Usansolo, adin txikikoa. Martín de Zamudio ager da bere zaintzaile:

En la Casa y torre de Arancaçu que es en la merindad de Arratia, a veinte y ocho dias del mes de febrero de mill e quinientos y setenta y seis años, por testimonio de mi Pº de Leguinaeche, escriuano de su magd y testigos de yuso contenidos, **Myn de Çamudio**, vezino de la anteiglesia de Arancaçu, como curador que es de Mariybanes de Atucha, hija de Pº Vrtiz de Atucha e doña Mariybanes de Usunsolo, su mujer, defuntos...

Ematen du, aurreko eta jarraiko agiriok ikusita, Pedro Ortiz eta Mari Ibáñez hil diren garaian, euren alaba María Iñiguez eta Martín de Zamudio Arantzazuko oinetxe eta dorrean bizi direla, adin txikiko María Ibáñez de Atucharekin:

En Ybarra de la anteyglesia de Arancaçu, a siete dias del mes de setiembre de mill e quinientos y setenta e cinco años, en presencia de my, Jacobo de Ysasi, escriuano publico del numero e testigos, el dho **Mrn de Çamudio... dende la casa y torre de Arancaçu donde es y la dha dona Maria Ybanes de Atucha su menora biben e moran...**

4.2.-Martín de Zamudio eta María Iñiguez de Atucharen ondorea

Martín eta María Iñiguezen oinordekorik zaharrena Lemoan jaioa dugu; gainontzekoak, Arantzazun. Hona euren zuhaitz genealogikoa:

María Iñiguez de Atucha Usansolo & Martín Sáenz de Zamudio Sánchez (Lemoa, Andra Mari: 1572-11-27)

- 1.-**Margarita de Zamudio Atucha** (1572-12-13, Lemoa)
- 2.-**Diego López de Zamudio Atucha** (1574-04-20, Arantzazu)
- 3.-**María Ibáñez de Zamudio Atucha** (1577-07-20, Arantzazu)
- 4.-**María de Zamudio Atucha** (1581-02-05, Arantzazu)
& Francisco de Durandio
(*Lemoa, Andra Mari: 1606-05-24*)
& Juan de Uriguen
(*Lemoa, Andra Mari: 1621-06-29*)
- 5.-**Bernabe de Zamudio Atucha** (1586-06-14, Arantzazu)



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoien bidetik

6.-**Pedro López de Zamudio Atucha** (1587-05-13, Arantzazu²)

& Catalina Ortiz de Bedia Tosubando (†1602-10-10, Galdakao)

(Galdakao, Andra Mari: 1599-08-02)

7.-**Juana de Zamudio Atucha** (1589-08-14, Arantzazu)

& Sebastian (Larrabeitia) de Arrate

(Lemoa, Andra Mari: 1612-08-02)

7.1.-María Íñiguez de Arrate Zamudio

7.2.-Isabela de Arrate Zamudio (1613-04-14, Lemoa)

7.3.-María de Arrate Zamudio (1615-06-17, Lemoa)



4.3.-Zamudio Atucha sendia

4.3.1.-María García de Zamudio

María García hau Martín de Zamudio eta María Íñiguez de Atucharen alabetako bat dugu. Arantzazuko Eleiz Artxiboetan, María Ibáñez bat dugu, 1577-07-20an jaioa; eta María bat, 1581-02-05an jaioa. Bigarren hau izan daiteke jarraiko agirian María Garcíaz ezagutuko duguna.

Pedro Sáenz eta osaba Ortuño Sáenz de Cirruistaren arteko akordio bat dugu, 4.2.1. atalaen garatuko duguna. Akordioan, besteak beste, honako hau adosten da:

...dijeron que los dichos cincuenta ducados en cada un año que estan situados para casamientos de huerfanas los hayan de gozar, es a saber, los cuatro años primeros haya de gozar la dicha memoria y renta **Maria Garcia de Zamudio y Atucha**, doncella, hija legítima de Martin de Zamudio, difunto, y de doña **Maria Yniguez de Atucha** = y los otros tres años haya de gozar **Maria de Ugarte**, sobrina del dicho Juan Saenz, difunto, y entre las dos hayan de gozar los años de suso referidos para cada una alternativamente, la una un año y la otra otro hasta que sean pagados y satisfechos de los dichos años. (BFAAH-JCR2016/009)

María García hau birritan ezkonduko da, bietan Lemoako Andra Marian: 1606-05-24n, Francisco de Duradio batekin (*EE_AA_ezkontzak_100482*); 1621-06-29an, Errigoitiko Juan de Uriguenekin³ (*EE_AA_ezkontzak_101040*).

² Pedro López de Zamudio honen ezkontza eta seme-alaben datak <https://www.geni.com/people/Pedro-Lopez-Zamudio-y-Barraondo-Atucha/6000000030339381961> web orrian lortu ditugu.

³ "... Juan de Urigoen, vecino de Errigoytia, y Mari Garcia de Çamudio, viuda que quedo de F^co de Duradio..., hallandose presentes por testigos P^r Lopez de Çamudio patron de la dha iglesia..." .



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

4.3.2.-Pedro López de Zamudio Atucha

Pedroren patronimikoak 1.2.1. atalean azaldu zaigun **Lope de Atucharekin** lotuko luke, zalentzarik gabe.

Martín Sáenz eta María Íñiguez gurasoen oinordeko izendatua izan zen, nonbait; izan ere, bera izango dugu Lemoako patroi.

4.3.2.1.-Pedro López eta Catalina Ortiz de Bedia Tosubando

Pedro López bi aldiz ezkondu zen. Catalina Ortiz de Bedia Tosubando, *Tosubando oinetxekoa*, izan zen bere lehen emaztea. Galdakaon ezkondu ziren, 1599-08-02an (*EE_AA_ezkontzak_93773*):

Pº Lopez de çamudio & catalina urtiz de Vedia y tosubando

“En la yglesia de Santamya de Galdacano a dos dias del mes de agosto de mil e quinientos y nobenta y nuebe años ---- doctor Avendaño, cura y beneficiado de esta dicha yglesia, despose y case por palabra de presente a Pº Lopez de Çamudio **patron de la yglesia de Sta Mª de Lemona**, hijo legitimo de Myn de Çamudio difunto y de dona Mary Yniguez de Atucha, su mujer, y a dona Catalina Urtiz de Vedia y Tosubando, hija legitima de Sancho Ortiz de Vedia, Sr de la casa de Tosubando y de doña ----- de Beroxtegui, su legitima mujer.”

Lehen ezkontza honetakoak dira Miguel, Mari Íñiguez eta Magdalena de Zamudio Tosubando:

Pedro López de Zamudio Atucha (1587-05-13, Arantzazu⁴)

& Catalina Ortiz de Bedia Tosubando (†1602-10-10, Galdakao)

(*Galdakao, Andra Mari: 1599-08-02*)

1.-Magdalena de Zamudio Bedia Tosubando

(1600-05-23, Lemoa) (†1656-06-13, Galdakao)

& Martín Ruiz de Guerra Azcuenaga

(*Igorre, Andra Mari: 1619-04-05*)

1.1.-Pedro de Azcuenaga Zamudio⁵

1.2.-Antonio de Azcuenaga Zamudio & Catalina de Ajangiz

1.2.1.-Ana de Azcuenaga Ajangiz (1651-09-16, Lemoa)

2.-Mari Íñiguez de Zamudio Tosubando (1601-06-19, Galdakao)

& Rodrigo de Arespechueta

2.1.-Pedro Martínez de Arespechueta Zamudio & Catalina de Olarra Uria

3.-Miguel de Zamudio Tosubando

⁴ Pedro Lopez Zamudio honen ezkontza eta seme-alaben datak <https://www.geni.com/people/Pedro-Lopez-Zamudio-y-Barraondo-Atucha/600000030339381961> web orrian lortu ditugu.

⁵ “Pedro de Axcuenaga y Zamudio, cura y beneficiado de la yglesia parroquial de Santa Maria de Lemona...” (*BFAAH-JCR1035/003*).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoaren bidetik

Sancho Ortiz de Bedia Tosubandoren ondasunen aurkako auzia (BFAAH-JCR0130/003)

Sancho Ortiz eta alaba Catalina eta Mari Ortizek Aparicio de Ormaeche bilbotarraren aldeko sei obligazio-eskritura sinatu dituzte 1592-1598 urteetan zehar. Ematen du ez direla obligazioak bete eta Aparicio honek exekuzioak egin ditu Bedia Tosubandotarren ondasunetan.

Pedro López de Zamudiok hamabost mila laurehun eta hirurogeita hamazazpi erreal ordainduko dizkio Mari Ibáñez de Jugo aipatu Aparicioren emazteari 1602ko abenduak hogeita hamarrean:

= y ansi por la presente y su thenor, como tal tutora y cuidadora de los dhos mis hijos menores = otorgo y conozco de que me doy por contenta y pagada y entregada a toda mi voluntad realmente y con hefeto de Pº (Lopez) de Çamudio, patron y merino maior en la meridad de Bedia por el Rey nro señor, de quince mil quattrocientos y setenta y siete rrs, por hauermelos dado y pagado en esta manera = los mil y çien rrs que confieso hauer reçiuido del dho Pº de Çamudio y doña Catalina Ortiz de Bedia y Toçubando, su muger difunta en su vida = y catorce mil treçientos y setenta y siete rrs en reales de plata de quatro y de ocho y escudos en oro que valieron la dha suma en presencia de los testigos desta carta de lasto, de que yo el infraescrito escriuano doy fe de la dha paga y de que se hizo en las dhas monedas de suso referidas y de que la dha doña Mari Ybañez de Jugo Esquerra los reçiuio y paso a su parte y poder, y se quedo satisfha y contenta = la qual como tutora y cuidadora de los dhos sus hijos menores dio y otorgo carta de pago y lasto en fauor del dho Pº de Çamudio... = ... lo otorgue ansi ante el presente escriuano y testigos yuso escritos que fue fecha y otorgada en la dha villa de Bilbao a treinta dias del mes de diciembre de mil y seiscientos y dos años... = ... yo el sobre dho Diego de Çamudio, scriuano del Rey nuestro señor e de sus Reynos y del numero y ayuntamiento de la dha villa presente fui con los dhos testigos, y... en testimonio de verdad, **Diego de Çamudio**

Ematen du **Diego (López) de Zamudio (Atucha)** eskribaua Pedro Lópezen anaia dela, Arantzazun jaioa 1574-04-20an.

Ordainketa honen ondorioz, Pedro Lópezi exekutatutako ondasunen jabetza emango zaio 1603ko urtarrilak zortzian; ondasunon artean, *Bediakolea* ola, *Bediako Kadalso* errotak, *Tosubando* oinetxea eta dorrea.

Auzia luze doa eta hauetako batean Martín Ruiz de Garate azaltzen zaigu, Mari Ortiz de Bidiaren izenean diharduena. Martín Ruizek dio Sancho Ortizek, egin zuen testamentuan⁶, alaba Catalina eta Pedro López izendatu zituela oinordeko. Pedro Lópezek dio ez dakiela testamentuaren konturik; are, ez eta Sancho Ortiz hil denik. Badakiela, jakin, lauzpabost urte aurrerago Indietara partitua zela, horrek hil denik adierazten ez badu ere⁷.

Auzian bi aktore berri azaltzen zaizkigu: Pedro Lópezen alaba Magdalena de Zamudio eta honen senar Martín Ruiz de Guerra Azcuenaga. Hauek Magdalenaren amaren ondasunen erdia eskatzen diote Pedro Lópezi. Haistik, honek dio ondasunok Juan Ortiz de Bedia jarauntsi zituela,

⁶ 1596ko urriak hamaseian luzatua, Arteagan, Juan de Zubietako eskrivaua lekuko dela.

⁷ "Antes se presume al contrario, porque el hombre puede biuir y se presume que puede biuir hasta cién años, el qual dho Sancho Ortiz segun es publico e notorio apenas tiene cincuenta y ocho, y pues la presuncion es en mi favor..." (*ibid.*)



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoaren bidetik

Sancho Ortízen oinordeko gisa. Pedrok adierazten du berak Juan Ortiz erosi zizkiola emazte Catalina hil ostean; beraz, bere hazienda propioko direla.

1619-1620 urteetan zehar, jabetza desberdinak emango dira: *Bediakolea* ola, *Kadalso* errotak, *Bediako Kurutzeaga* eta *Tosubando* oinetxeak, 1619an, Martín Ruiz de Guerra Azcuenagaren aldekoak. 1620an, *Bediakolea* ola, etxe eta errotena, Martín Ruiz de Garateren aldekoa.

4.3.2.2.-Lemoako Kabildo eta eliztarren aurkako auzia 1603an (EE_AA_2475-002-08)

Pedro Lópezek eragindako auzia, Patroi gisa Lemoako elizan dituen Lehentasunak⁸ eta bere hilobiak duen lekua direla eta.

Kontua da, nonbait, Lemoako eliza zabaltzeko obrak hasi direla: albo bat guztiz berria eraiki, kapera zaharra eraitsi, berria jaso eta bertako hilerrrian lurperatuak diren gorpuen hezurrak altxatu... :

Por la presente... damos permiso y licencia al cabildo y beneficiados, Concejo vecinos y parrochianos de la yglessia de Lemona para que puedan sin yncurrir en pena alguna derribar la pared bieja que esta delante de la nueba que se ha hecho al Unlado de la dha yglessia y para exhumar los huesos de los difuntos que estan sepultados en el ciminterio de la dha iglesia dentro della en la sepultura que les paresciere, y ansi mismo para que puedan derribar y demoler la capilla bieja que esta delante de la nueba para poder pasar en el edificio della adelante conforme a las licencias que para el dho hedificio tienen... Dado en La Calçada a veinte y tres de mayo de mil y seiscientos y tres años = el licenciado Adaro San Martin

Elizan, hilobi berrien banaketa egin eta izango dituzten salneurriak ezartzen dira. Eskuin-ezker, zortzi hilobiko sei ilara. Lehen ilarakoak, hoherenak, ehun errealetan; bigarren ilarakoak, zazpi dukatetan; hirugarrenekoak, bost dukatetan; laugarrenekoak, hiru dukatetan; bosgarrenekoak, hogeita lau errealetan, eta seigarrenekoak, hamasei errealetan:

Pedro de Herreros en nombre del cabildo y beneficiados y mayordomo fabriquero de la anteyglesia de Lemona = digo que en la dha anteyglessia por el dho cauillo y beneficiados y mayordomo mis partes se han ttraçado y señalado las sepulturas que ha de hauer en la dha anteyglessia por yleras como son Primera, segunda y tercera hasta seis yleras por ambas partes de cada ocho sepulturas en cada ylera, y las principales son muy buenas y cerca de las gradas del altar mayor y merescen muy bien por las primeras a çien Reales cada sepultura y las de segunda a siete ducados y de las de la ttercera a cinco ducados y las de la quarta ylera a tres ducados = y las de la quinta a veinte y quattro reales, y las de la sexta a diez y seis rreales = Por tanto a VM pido y suplico con vista de ttodo se sirba de mandar declarar el balor de casa sepultura, pues es de justicia que pido y para ello, Pedro de Herreros


⁸ "El derecho de preeminencia de asiento en la iglesia consistía en la posesión del sitio más preeminente para el patrón, es decir, más avanzado y por tanto cercano al presbiterio; esto significaba la mayor proximidad al lugar donde se consagraba el acto religioso a Dios. Este adelantamiento hacia el altar debía ser destacado y visible, al lado del Evangelio y con sillas para el patrono y su esposa, sin que ningún otro asiento de la iglesia, aunque fuese de un notable, estuviera más destacado y preeminente que el de los patronos" (Larrea, *El patronato...* op. cit., 1984: 58).



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Ttreslado al Patron en diez y ocho de agosto de mil y seiscientos y tres = notificado este dia a **Pedro de Çamudio**

Hona, egin zuten oinplanoa⁹:



	Arrate	Juan de durandio	Alzaybar	Aguirre	Urizar	Durandio	Landaburu	Aldape
	Juan de barroeta	Pedro de barrosta	Yturriaga	S. Joan de subiela	Juan de mendiola	martin de goyti	Sancho de mendiola	Pedro de mendiola
	Sancho de helorriaga	Domingo de helorriaga	Juan de Andia	Chichotegui	Gandarias	fran ^{co} de astegua	tomas de astegua	Hortuño de careaga
	gallaga de astegua	nicolas de astegua	Uribarri de lazo	Uribarri de arriba	La Riba	Yerovenz	Martin de padura	Juan de padura
	martin abad de benero	nicolas de sabio / gralda	Juan de Vizcarra de Atucha	Burpusto	Juan de urria	maribia rios de yru	Pedro de yruzcan	teresa de Arratia
			Rodrigo de herenio	pedro de herenio			Mathia de los Roza	

Atuchola	Çubiate	Atucha	Yturrios	Yturrios	Laueta	Landeta	Atucha	
Vria	musurtu	goyti	echuña Ria de martin	echuña Ria de morron	La Rabia yria	Insausti	Arana	
Lauetako martin	Ameçola	Vrijar derriagel	gago Vr jard de padro	Mendibai	Vricabel	barcua	Lemonoria	
fran ^{co} de gallaga	liaza	pedro de hechotegui rria	Azua	ARan ^{do} de Riba	ARan ^{do} de Riba	Arecheta	Vriedes	
Uribe de ana Raya	pedro de arecheta	Mallu guipu	Lemonia Vria de pedro	Juan de Vrisatxo de Raya	sancho de Raya	marisau Juan de arecheta	Uribia de Matheo	

Pedro Lópezek auzia jarri du bere lehentasun eskubidea gorde diezaioten eta inoren hilobirik jar ez dadin berearen mailan. Azkenean, akordioa lortzen dute:

⁹ Lehen ilaran, eskuinean (eskuin-ezker): Atucha, Landeta, Laueta, Yturrios, Yturrios, Atucha, Çubiate, Atuchola. Ezkerrean: Aldape, Landaburu, Durandio, Urizar, Aguirre, Alzaybar, Juan de Durandio, Arrate.

Bigarren ilaran, eskuinean: Arana, Ynsauti, Larrabeytia, Morron de Echabarria, Martin de Echabarria, Goyti, Musurtu, Vria. Ezkerrean: Pedro de Mendieta, Sancho de Mendieta, Martin de Goyti, Juan de Mendieta, San Joan de Subiate, Yturriaga, Pedro de Barroeta, Juan de Barroeta.

Hirugarren ilaran, eskuinean: Lemonuria, Barcua, Uriçabel, Mendibil, Pedro de Goycouria, Miguel de Urizar, Ameçola, Marina de Laueta. Ezkerrean: Hortuño de Careaga, Tomas de Asteyza, Francisco de Asteyza, Gandarias, Chichotegui, Juan de Andia, Domingo de Helorriaga, Sancho de Helorriaga.

Laugarren ilaran, eskuinean: Urtisabel, Arecheta, Arraibi de abajo, Arraibi de arriba, Azua, Pedro de Hechabarria, Li[n]aça, Francisco de Gallaga. Ezkerrean: Juan de Padura, Martin de Padura, Ynsunza, Larrina, Uribarri de arriba, Uribarri de abajo, Muguiaran, Gallaga del Conde.

Bosgarren ilaran, eskuinean: Matheo de Uribe, Mari San Juan de Arecheta, Sancho de Arraño, Juan de Uribarri de Arreybi, Pedro de Lemonauria, Malluguiça, Pedro de Arecheta, Ana Ruyz de Uribe. Ezkerrean: Teresa de Arraño, Pedro de Ynzunza, Maribañes de Yturrraran, Juan de Ureta, Burpusto, Juan de Uriçar de Atucha, Nicolas de Sabalgoytia, Martin Abad de Benero.

Seigarren ilaran, ezkerrean: Mathia de Barroeta, Pedro de Hereño, Rodrigo de Hereño.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoaren bidetik

...Sancho Auad de Barroeta mayordomo clérigo de la fabrica de la dha yglessia dixo e propuso platica p̄amente de como la dha yglessia yba ensanchando y hedificando e de haberse hecho mucha obra en ella y las sepulturas de los vezino de la dha anteyglesia que solian estar fuera de el cuerpo de la dha yglesia en el ciminterio se hauian e iban mudando e trasladando adentro del cuerpo de la dha yglesia, para cuyo Hefecto y otras cosas e por el provecho y benta de las dhas sepulturas hauia dado al Sr provisor deste obispado de Calahorra el qual le hauia dado licencia e facultad para la ventta de las dhas sepulturas attento a su prescio y hera para el reparo y adorno de la dha yglessia e hobra que se hauia hecho y se hazia en la fabrica della e asi todos los dos vezinos se hauian de obligar en favor de la dha fabrica e del dho Sancho Auad de Barroeta mayordomo que al presente hes y de los que fueren de aqui en delante de pagar los precios de sepulturas que fueron moderados por el dho Su provisor... = dixeron que confessando ser en utilidad e provecho e mas autoridad del culto divino e debocion dellos mismos de que las dhas sepulturas se trasladen y muden de fuera adentro al cuerpo de la dha yglessia donde estauan señaladas, **con que ninguna aya dentro en las gradas de la dha yglesia ni tocar en ellas sino una para Pº de Camudio patron della que se le hauia dado y señalado e consentido todos ellos** = e por la presente se obligauan y se obligaron cada uno por si... de dar y pagar y daran y pagaran la cantidad de la sepultura que a cada uno se le esta dada en la ylera que tomare e tiene tomada y el prescio que vale... = y lo otorgaron en si siendo testigo el Br Raphael de Çamudio e Mim Avad de Benero clérigo e Juan de Malluquiça sastre y otros vecinos ...

4.3.2.3.-Pedro López eta Agueda Rubina

Pedro López bigarrenez ezkondu zen Bilboko Agueda Rubina Pilarekin. Ezkontza honetakoak dira jarraiko seme-alabak:

- Pedro López de Zamudio Atucha (1587-05-13, Arantzazu)**
& Ageda Rubina Pilla
- 1.-Martín de Zamudio Tosubando Pilla (1608-11-03, Galdakao)
 - 2.-Pedro de Zamudio Rubina (1612-11-30, Galdakao)
 - 3.-María Antonia de Zamudio Pilla Rubina (1614-01-28, Galdakao)
 - 4.-Andrés de Zamudio Rubina (1615-04-22, Lemoa)
 - 5.-Diego López de Zamudio Rubina (1616-08-29, Galdakao)
 - 6.-Santiago López de Zamudio Rubina (1618-08-10, Lemoa)
 - 7.-Luisa de Zamudio Rubina (1623-09-19, Galdakao)
 - 8.-Martín de Zamudio Tosubando Pilla (1608-11-03, Galdakao)

4.3.3.-Diego López de Zamudio Rubina

Seme-alaba guzti hauetan, Diego López de Zamudio Rubinaren arrastoaren atzetik joango gara, azal-azaletik bada ere, bera eta ondorengoak jarraituko baitute, bestek beste, Lemoako patroitzan.

Diego López, ikusia dugunez, Galdakaon jaio zen 1616an. Bizkaiko Eleiz-Artxiboetako bilatzaileak sei gizon-andrazko itzuli dizkigu lehen abizena Zamudio eta aita Diego López Zamudio dutenak. Guztietan, grafia bat edo beste erabiliz, **Clara de Gojenola Atucha** da ama, Pedro de Gojenola eta **Catalina de Atucharen** alaba.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Lan honetako beste atal batean eskaini diogu bere tartea Catalina de Atuchari; han itzuliko gara, bada, Clara de Gojenolaren berri ematera.

Itxura guztien arabera, Diego López de Zamudio eta Clara de Gojenola Atucha 1648an ezkondu dira, lehen semea 1649ko otsailak hogeita zortzian jaioa baita. Hona seme-alabak:

Diego López de Zamudio & Clara de Gojenola Atucha

- 1.-Pedro de Zamudio Gojenola (1649-02-28, Lemoa)
- 2.-Joan de Zamudio Gojenola (1651-01-31, Lemoa)
- 3.-M^a Antonia de Zamudio Gojenola (1653-06-05, Lemoa)
- 4.-Diego de Zamudio Gojenola (1656-03-01, Lemoa)
- 5.-Catalina de Zamudio Gojenola (1658-01-10, Lemoa)
- 6.-Manuela de Zamudio Gojenola (1659-10-10, Lemoa)

Eleiz-artxiboetan, Clara de Gojenola bat azaltzen zaigu, Lemoako heriotza liburuetan, 1661-03-05an hila.

4.3.4.-Juan de Zamudio Gojenola

Diego López eta Clara de Gojenolaren seme Juan de Zamudio izango dugu, bere garaietan, Lemoako Patroi. Ikusi dugunez, 1651ean jaioa dugu. Lau urte beranduago, Lemoan bertan, María de Azcuenaga Barbachano jaioko da, 1655-09-14an, Roque de Azcuenaga eta Antonia de Barbachano Ugarteren alaba.

Juan de Zamudio eta María de Azcuenaga 1674 aldera ezkonduko dira. Juanen lehen ezkontza izango da. Bi seme-alaba ezagun izango dituzte:

- 1.-Catalina de Zamudio Azcuenaga (1675-07-07, Lemoa)
- 2.-Andrés de Zamudio Azcuenaga (1678-11-30, Lemoa)
- & Catalina de Landajo Bernaola
 - 2.1.-Clara de Zamudio Landajo (1713-04-21, Lemoa)
 - 2.2.-M^a Clara de Zamudio Landajo (1714-04-09, Lemoa)
 - 2.3.-Juan Andrés de Zamudio Landajo (1718-10-31, Lemoa)
 - 2.4.-Juan José de Zamudio Landajo (1722-02-06, Lemoa)
 - 2.5.-Francisca de Zamudio Landajo (1725-03-08, Lemoa)

Bigarrenez ezkonduko zaigu Juan de Zamudio; oraingoan, María Ventura de Basurto Acha Artunduagarekin. María Ventura hau, Juanen heriotza ostean, izango da Lemoako Patroi. Juan eta María Venturak alaba bat izango dute, María Rosa de Zamudio Basurto, Lemoan jaioa 1683an (*EE_AA_jaiotzak_1099564*).¹⁰

4.3.4.1.-Marí Rosa de Zamudio Basurto

Diogunez, María Rosa Lemoan jaio da 1683an. Lau urte lehenago jaio zen, Bilbon, Alde Zaharrean, Gregorio de Villar Fullaondo, 1679-03-13an. María Rosa eta Gregorio 1701-09-26an

¹⁰ Ez dira jaio zen eguna eta hilabetea ondo ikusten.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoaren bidetik

ezkonduko dira, Bilbon bertan, San Juan parrokian, Alde Zaharrean. Euren seme izango da Juan José, 1702-06-19an jaioa (EE_AA_jaiotzak_1077165).

Juan de Echebarria Aguirreren hartzekodunen lehiaketa (BFAAH-JCR0477/013)

Denboran luze doan lehiaketa dugu honako hau. 1679an, Lemoako Aguirre oinetxearen aurrean, harkaitz batzuren artean, Juan de Echebarria Aguirre aurkitzen dute, aipatu oinetxeko jabea. Juan, orrialde hauetara ekarri ditugun beste hainbat jabe bezala, zorretan leporaino zegoen eta, bere heriotzaren ondorioz, oinetxea hartzekodunen lehiaketan sartuko da.

Lehiaketan hartzekodun desberdinak azalduko dira euren kredituak kobraztzeko asmoz; euren artean, Juan de Zamudio Gojenola. Juan de Zamudio eta Juan de Galarza Lemoako fielak ziren Juan de Echebarriaren heriotza gertatu zenean. Ikerketa egin zuten algoazilen gastuak mila laurehun eta berrogeita hamar errealekoak izan ziren, Juan de Zamudio eta Juan de Galarzak ordaindu zituztenak.

1694ko graduazio-epaiean, hartzekodunen mailaketa egiten da eta, seigarren tokian, Juan de Zamudio eta Juan de Galarzari zor zitzaiena ordain zekien agindu zen.

Ia hogeい urte beranduago, 1713an, zorrak ordaintzeke daude. Gregorio de Villar Fullaondo Valladolizgo Kantzelaritzako abokatua eskaera bat dugu Juan de Zamudiori zor zitzaizkien errealkak berari ordain dakizkion eskatzen duena. Eskaera horretan aitagnarreba Juan de Zamudio, emazte etabarren berri ematen zaigu:

Don Gregorio de Villar y Fullaondo, Abogado de la Real Chancilleria de Valladolid, vecino de la Anteyglesia de Abando, como marido lexítimo y conxunta persona de **doña María Rosa de Zamudio Basurto de Acha, Patrona de la Anteyglesia de Lemona**, en la forma que mas aya lugar por dro paresco ante Vm = Y digo que en el pleito de Concurso de Acreedores a la Casa y casería de Aguirre y sus pertenecidos sita en la Anteyglesia de Lemona, que fue y quedo por muerte de Juan de Echuarria y Aguirre, vecino que fue de dha Anteyglesia, y Maria de Gallaga Echuarria su muxer, en la sentencia de graduación que en el se dio, en sexto lugar y grado, se manda hacer pago a **don Juan de Zamudio**, mi suegro, **Patron que fue de dha Anteyglesia ya difunto, Padre lexítimo que fue de la dha doña María Rosa**, y a Juan de Galarza, vecino de dha Anteyglesia de Lemona, fieles que fueron de dha Anteyglesia, o a quien lexitimamente vbiere de auer de un mil quatrocientos y cincuenta rrs von que importaron los gastos que hicieron con los Ministros que fueron a la averiguacion del delito cometido en la muerte del dho Juan de Echuarria; y por muerte del dho don Juan de Zamudio se le notifico a doña **Maria Bentura Basurto de Acha**, su lexíima muger, mi suegra ya difunta, madre lexíima que fue de la dha doña María Rosa, quien respondio que el credito que tiene que auer sobre dicha Casa y casería de Aguirre zedia en mi, como yerno suio, con todas las clausulas y fuerzas que se requiere, con quien se sustancie esta causa asta que se me haga pago; y mediante el poder que en tal caso se requiere, como todo lo referido consta de dha respuesta que reproduzgo y juro = Por todo lo qual y demas fauvorable a Vm, pido y suplico mande se me haga el pago que me corresponde de dha cantidad sobre dha casa y casería concursada de Aguirre, con mas las costas, pues todo es de justicia que pido, y para ello firmo =

Aguirre oinetxeko ondasunen tasazio baten berriak diosku, 1751n (hirurogeita hamabi urte beranduago!!!), ordainketa egin gabe dagoela:



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoien bidetik

En la anteiglesia de Abando, a nuebe de junio de mill seteientos y cincuenta y uno, yo el essno de su Magestad notifique el pedimiento y auto antecedentes en persona a don **Gregorio de Villar y Fullaondo**, vezino de esta dha Anteyglesia, como **marido lexitimo de doña María Rosa de Zamudio**, quien dijo consiente que Juan Bautista de Ybarra, perito, pase a hazer la tasazion de los vienes que expresa, y en fe firme = Elorrieta

4.3.5.-Catalina de Zamudio Gojenola

Diego López eta Clara de Gojenolaren alaba da Catalina, Juan de Zamudioren arreba, Lemoan jaioa 1658-01-10ean.

Catalina de Zamudio Lemoako Andra Mariaren elizan ezkonduko da 1679-03-15ean, Juan Bautista de Bernaola Isunza Campo, lehen ezkontzan Jacinta Zaraterekin ezkondua zen bilbotarrarekin.

Hona izango dituzten seme-alabak:

- 1.-José de Bernaola Zamudio (1679-11-25, Bilbo, Santiago)
- 2.-Diego de Bernaola Zamudio (1681-02-24, Bilbo, Santiago)
- 3.-Miguel Gerardo de Bernaola Zamudio (1682-09-25, Bilbo, Santiago)
- 4.-María Clara de Bernaola Zamudio (1685-04-02, Bilbo, Santiago)

4.3.5.1.-Lemoako Zabala oinetxea (BFAAH-JCR1035/003)

Catalina de Zamudio eta senar Juan Bautista de Bernaola aktore ditugun auzi bat da honako hau, 1686-1704 urte bitartean, Lemoako *Zabala* oinetxearen hartzekodunen lehiaketa deskribatzen duena.

Ehun eta berrogeita hamar bat orritan zehar, istorio honetako kapitulu desberdinatan barrena aurkeztuko ditugun hainbat pertsonaia, sendi... azalduko dira: hala nola Pedro Sáenz de Guerra Azcuenaga eta emazte **María Pérez de Atucha Unda**, eta euren alaba eta suhiak; edota Carlos Manuel de Billela Gortazar eta emazte Inés de Azcuenaga.

Auziaren garaian, Lemoako Simón de Iturrioz Zabala eta Iurreko Antonia de Iturriaga senar-emazteak ditugu *Zabala* oinetxeko jabe, lehenago Domingo de Iturrioz eta María García de Zabala izan ziren bezalaxe.

Kontua da jabeok, bakoitzak bere garaian, hainbat zentsu saldu dituztela, guztietañ ere *Zabala*, euren oinetxea, berme jarrita.

Domingo de Iturrioz eta María García de Zabalak saldukoa:

-1633ko apirilak 25ean, Martín de Artabe Padurari, Lemoan.

Simón de Iturrioz eta Antonia de Iturriagak saldukoak:

- 1657ko martxoak 25an, Pedro Sáenz de Azcuenagari, Igorren.
- 1667ko uztailak 25ean, María Pérez de Atuchari, Lemoan.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoien bidetik

- 1669ko uztailak 7an, Juan de Gallagari, Igorren.
- 1670eko ekainak 4an, María Pérez de Atuchari, Igorren.
- 1681eko ekainak 23an, Pedro de Zulaibar eta María de Azcuenaga Zubíateri, Igorren.
- 1682ko otsailak 23an, Pedro de Zulaibar eta María de Azcuenaga Zubíateri, Igorren.

1657, 1667 eta 1670eko hiru zentsuak berrehun dukat printzipal eta korrituak dira, 1680an Carlos Manuel de Billela Gortazar eta **Inés de Azcuenaga Atucha** senar-emazteenak. Inés de Azcuenaga hau, dagokion kapituluan ikusiko dugunez, Pedro Sáenz de Azcuenaga eta María Pérez de Atucharen alaba dugu, oinordeko, zentsuak jaraunsten dituena; Carlos Manuel, Inésen senar.

1681eko uztailak hemeretzian, Carlos Manuel eta Inés senar-emazteek saldu egiten dituzte hiru zentsuok, Igorren, nori eta Pedro de Zulaibar eta María de Azcuenagari.

Aurkeztu berri dugun María Pérez de Atucha Unda durangarra Pedro Sáenz de Guerra Azcuenaga, *Ubirixaga* oinetxeko jaunaren hirugarren emazte besterik ez da. Pedro Sáenzen bigarren emazte Lemoa-Bediako Catalina de Zubiate Bedia Tosubando izan zen; ezkontza honetako alaba dugu María de Azcuenaga Zubíate, Inés de Azcuenagaren ahizpaorde, Pedro de Zulaibar alferezarekin ezkonduko dena.

1681eko uztailan, bada, María de Azcuenaga eta Pedro de Zulaibar zerrendatu ditugun sei zentsuetan bosteko jabe ditugu, laurehun dukat printzipal egiten dituztenak.

1682ko otsailak hogeita bostean, azkenik, Bilboko Juan Bautista de Bernaolari -auzi hau eragin duen Catalina de Zamudioren senar- saltzen dizkiote bost zentsuok María de Azcuenaga eta Pedro de Zulaibarrek.

Hartzale desberdinak azalduko dira auzira euren eskubideak defendatuz, eta 1702ko abenduak hogeita bian, Francisco Ramos Quiroga Korrejidoreak graduazio-epaia emango du.

Hiru, sei, zazpi, zortzi, bederatzi eta hamargarren tokian, Catalina de Zamudiori bere senar Juan Bautista de Bernaolak erosi zituen zentsuei dagokien dirua ordain dakion agintzen du Korrejidoreak.

Juan Bautista de Bernaolaren lehen emazte eta seme-alaba eta Catalina de Zamudio bigarren emazte eta seme-alaben arteko senarraren ondasunen zenbaketa eta banaketa egiten da Abandon, 1685eko ekainaren hamaseian. Catalina de Zamudiori 4.965 erreal jarri eta esleitzen zaizkio aipatu zentsu eta korrituen ordainez.

